

## JOLAS TXOKOAK 2017

Aurreko urteetan bezala, Guraso elkartetik zuen seme-alabei egun batzuk beste haur batzuekin batera euskaraz pasatzeko aukera eskaini nahi diegu. "Motxila bidaiaria" aurtengo proposamena da.

Programatutako jarduerak dibertigarriak eta hezitzaileak dira: hainbat joko mota, tailerra, ur-jarduera, ipuin, abesti egingo dira, lehen hezkuntzakoak igerilekura joango dira eta haur hezkuntzakoak txangoak egingo dituzte.

DATAK asteka	NORENTZAT	NON	ORDUTEGIA	PREZIOA (1)		
(aste bat, 2 edo 3 aukera daitezke) • Ekainaren 23tik 30era • Uztailaren 3tik 7ra • Uztailaren 10etik 14ra	HAUR Hez. 1. eta 2. (3 eta 4 urteko gelak)	Ikastola TXIKIA	9:30-13:30	aste bat bazkide 61 €	2 aste bazkide 122 €	3 aste bazkide 183 €
	HAUR Hez. 3. (5 urteko gelak) LEHEN Hez. 1.-6.	Ikastola HANDIA	9:25-13:25	ez bazkide 96 €	ez bazkide 157 €	ez bazkide 218 €

(1) Udal Hezkuntza Departamentuak udako ekintza hauek antolatzeko dirulaguntza ematen du eta horren arabera kuota jeitsiko da. Erresoluzioa azaroan aterako da eta orduan familiei informatuko zaizue dirua itzuliko den ala ez eta zenbatekoa den.

### GOIZEKO LUDOTEKA

8:15etik aurrera zabalik. Sarrera malgua izango da. Gutxieneko kopurua: 15 haur. **Prezioa: 15 € asteko**

### JANTOKIKO ZERBITZUA

13:30etik 15:00etara egongo da. Gutxieneko kopurua: 15 haur. **Prezioa: 33 € asteko Haur hezkuntzarentzat eta 26,40€ asteko Lehen hezkuntzarentzat, Gamarrako txangoan haien bazkaria eramango dute eta.**

- **Epe guztiak errespetatzea.** Epez kanpo emandako eskaerak ez dira onartuko.
- Eskaera kopurua leku kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da **hurrenkera hau errespetatuz**:
  - Guraso elkarteko bazkideak.
  - Guraso elkarteko bazkideak ez direnak.
  - Ikastolakoak ez diren D ereduari matrikulatutako haurrak.
- **Onartutakoen zerrendak** Ikastola bietako sarreretakoa iragarki oholetan jarriko dira, baita facebook eta web orrian ere
- **BEHIN IZENA EMANDA, EZ DA DIRUA ITZULIKO**
- **BILERA**  
**Ekainaren 1ean**, osteguna, 17:30ean, ikastola handiko jantoki zaharrean (Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra). Zaintza zerbitzua egongo da.

### INSKRIPZIOAK

**Lekua:** Udalekuetako kutxan (ikastola bakoitzeko sarreran)

**Epea:** Maiatzaren 3tik 10era

**Zerrenda argitaratzea:** Maiatzaren 17an

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Gutunazal bat; bertan haurraren izen-abizenak idatzi eta hurrengoak sartu ondoren, itxi:

- Inskripzio orria beteta
- Ordainagiria  
Laboral Kutxa  
ES43 3035 0177 79 1770015861

Eskaera orria honako helbidean lor daiteke:  
[www.abendanogurasoak.com](http://www.abendanogurasoak.com)